



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain



zuzendariari@egunkaria.com



943 300 228

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 le-
rro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea
eta NAREN zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak
bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.



zuzendariari

Kontraesanak

Igarotzen bagara Nafarroatik Araba-
ra Ziordian barna, orduan han, mu-
ga hartan, errotulu handi batean ze-
ra ikusiko dugu idatzita: *Euskadi/Pais Vasco*.

Honen gainean behin baino gehia-
gotan idatzi eta hitz egin du Gaizka
Aranguren. Aspaldian esan zuen,
besteak beste, kontzeptu horiekin,
gainerako euskal herritarro lapu-
rreta egin digutela.

Neronek ere, beste noizbait hitz
egin izan dut zertxobait gai hauxe
hartuta.

Hasteko eta behin, azaldu nahi
dut guztiz bat natorrela Gaizkarekin
balorazio horretan. Eta jarraitzeko,
saiatuko naiz ematen arrazoi eta zio
batzuk, esate baterako, hartzen ba-
ditugu azken urteotan argitaratu di-
ren hondarreko euskal hiztegi eta
entziklopediak, konturatuko gara
horiek guztiek *Euskal Herria* eta
Euskadi hitzak euskal probintziek
(Zuberoa, Nafarroa Beherea, Lapur-
di, Nafarroa Garaia, Araba, Gipuz-
koa eta Bizkaia) harrapatzen dituz-
ten lurraldeak hartzen dituztela. Be-
raz, Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak
hartzen duten eremuari deitzen ba-
zaio *Euskal Herria*, *Euskadi* edota
beren erdal sinonimoak, horrek
esan nahi du, hor, murrizketa ikara-
garri handia egiten zaiola hasierako
kontzeptuari, eta zati dezente bat,
erdia baino gehiago, kanpoan uzten
dela, kasu honetan bi Nafarroak
(edo bat, berdin zait, nondik begira-
tzen den), Lapurdi eta Zuberoa.

Hau guztiz nabarmena da. Uler-
tzeko ez da behar aparteko adime-
nik. Esaterako, guk leku jakin bate-
an ikusten badugu errotulu batean
Galizia, adibidez, horrek adierazten
digu hortxe bukatzen zaigula lurral-

de bat eta bertan hasten dela Gali-
ziako eremua. Berdin-berdin gerta-
tuko litzaiguke errotulu horretan ja-
rriko balu *Aragoi*, *Andorra*, *Landak*,
Suitza, eta abar.

Gainera, lehen Ziordia aldeko pa-
sabidea aipatu dut, baina ziur naiz
antzeko zerbaite gertatuko litzateke-
la Logroño, Burgos, Santander, La-
purdi, Bidasoa aldetik joanez gero,
eta abar. Horrekin ulertzen da, ale-
gia, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa al-
dera sartzerakoan, barneratzean
edota iristen garela Euskal Herrira,
eta, hortaz, gainerako pronbintziak
ez direla euskaldunen edo euskara-
ren herrikoak. Beste horrenbeste
gertatzen da erabiltzen direnean
hauek bezalako esamoldeak: *Bas-
kongadak*, *Euskal Erkidegoa*, beren
erdal bertsioak, eta abar. Zer? *Bas-
kongadakoak* ez direnak ez al dira,
bada, *baskoak*, edota Nafarroako
Foru Erkidegoak ez al dira Euskal
Herrikoak? Eta Iparraldekoak, zer?

Euskaltzaindiaren arabera hortxe
daude izen zuzenak, hau da, Euskal
Autonomia Erkidegoa, Nafarroako
Foru Erkidegoa, Iparraldea edo Ipar
Euskal Herria, Hegoaldea edo Hego
Euskal Herria, beren siglak eta
abar. Horrexegatik, nik uste dut
horiexek erabili beharko genituzke-
ela inor ez mintzeko. Neronek, behi-
nik behin, benetan min eta mespre-
zua sentitzen ditut EAera sartzean
Euskadi/Pais Vasco ikusten dudan
guztietan. Nafarroa Garaia eta Ipar
Euskal Herria zer dira, bada, Eus-
kal Autonomia Erkidegoko agintari
euskaltzale eta *abertzale* horientzat,
Kantabria eta Burgosko maila bere-
koak ala? Pertsona horiek apalta-
sun handiagoa beharko lukete
eta bakoitzari bere izena eman, bes-
terik gabe. **Xanti Begiristain** •
IRUÑEA

Partikularitasunez

Irakortzen ditudan artikuluetatik
badago halako konplexu bat euskal
kulturan zeinaren bitartez pensa-
tzen den euskal kultura partikulari-
tasun bat dela eta, ostera, greziar
erromatar kulturatik datorren kul-
tur europearra universal, eta aha-
leginak egiten dira gure partikulari-
tasunetatik kultur universalera
heltzen. Baina oker gaude, eta argu-
mentuen munduan ez du balio bate-
ratzerik gehien hedatua dagoena
universaltasunarekin, eta horrega-
tik gure kultura partikularra ez da
kultur greziar klasikoa baino parti-
kularra. Arazoa da ez dagoela
kulturarik universaltasuna heltzen
duenik, beraz gezurra da pensatzea
universalizat hartzen dena ez dela
ikergarria (ezin baita ezer universal-
izat hartu), fundatuz horrela halako
zientzia bat, antropologia deritzana,
kultur klasikotik, zeina ez baita
ikertua, izan diren beste kulturak
ikertzeko eta, jakina, integratzeko
kultur klasikoa. Denak jausten di-
ra azkenean erre honetan, ideolo-
gia dominantean azken batean, bai-
ta euskaldunak ere. Eta hauxe izan
liteke gaur egungo euskal literatur-
aren ezaugarri bat, ahalegin hau;
euskara jator eta garbia ere desitxu-
ratuz modernizazio hala holako ba-
ten izenean, bidea euskara garbi hu-
ra, zeinean aztarna ugari dauden
gure kultur jatorrizkoarenak, be-
rreskuratzea izan beharko litzateke-
larik. Eta ez iraganera itzultzearen
baizik eta kultur klasikoa hobeto
ikertzearen, gaur egungo zeregin
garrantzitsuena izan daitekeena,
batez ere psikologian (edo psikiat-
rian) eta filosofia politikoan. **Roman Garmendia** • SORALUZE (GI-
PUZKOA)

galdeiozu...



Pili Kaltzada

• IDAZLEA ETA KONTSEILUKO
KOMUNIKAZIO ARDURADUNA •

**Orokorrean, eta telebista
aurkezle gisa bereziki, zer
ekarpen egin liezaioke
emakumeak zientzia eta
teknikari?**

Andoni Oiarbide [Legorreta]

■ **BIDE LUZEA** dugu orain-
dik komunikabideetan zien-
tziaren mundua normalta-
sun osoz jorratzera iristeko.
Telebistaren eginkizuna (be-
ste askotan bezala!) oso han-
dia da, oinarrizko zutabea
baita gure gizartean. Egokie-
ra horretaz baliatuz, berdin-
tasun eta normaltasun espa-
rruak irabazten ari garela us-
te dut. Nire ustez, zientzia
garapenak arlo estrategikoa
izan beharko luke Euskal Her-
rian eta, beraz, oso garrant-
zitsua litzateke hitzeko ber-
dintasuna errealtatean ezar-
tzea. Ari gara, beraz.

Maiatzaren 2tik aurrera
Asisko Urmeneta

• MARRAZKILARIA

izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua.
Bidali zure galderak ordurako.

• MONTXO •

